berria info

Osteguna
Urtarrilaren 12a
2012. X. urtea
2.655. zenbakia
1,30 €
www.berria.info



**Vietnamgo mugarria**
AEBak Iraketik atera direnean, Vietnamgo mamuak itzuli dira 20-21

# Jaurlaritzaren defizita %1,3tik gorakoa izango da, aurreikusia baino handiagoa

Urte bukaerako datu ekonomikoak Eusko Jaurlaritzak uste baino okerragoak izan dira. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ekonomia atzeraldiaren mugan dago

Foru aldundiak zergak igotzera behartzeko formulak aztertzen ari da Lopezen gobernua. Agirrek dio «egitura honekin Jaurlaritza itotzeko arriskua» dagoela 14-15



JAVIER ETXEZARRETA / EFE

➔ **Sagardoa, prest.** «Txinparta finekoa eta aho sentsazio luzekoa». Hala dator aurtengo sagardo berria. Txotx garaia Julian Iantzi telebistako aurkezleak hasi du Astigarragan, sagardozaleek eta hainbat pertsona ezagunek lagunduta. Hamar milioi litro sagardo ekoitzi dituzte aurten. Nafarroan bihar hasiko dute sagardo garaia, eta Iparraldean, 21ean. Irudian, Julian Iantzi txotx garaia hasteko ekitaldian, atzo, Astigarragan. 38-39

## Haur lapurtuen aferagatik irekitako hobian ez da pertsona arrastorik azaldu

Mercedes Okarizek urteetan izan duen susmoa baieztatu du. 1977an izandako haurra hil egin zela esan zioten, baina hobia hutsik zegoen 10

## «Dena ere ez zela nahikoa izango» esanda ukatu die UPNk dirua hedabideei

Euskarazko hedabideentzat ez dute fitxik emango UPNk, PSNk eta Ezkerrak. NaBaik, Bilduk eta Ezkerrak legea betetzeko eskatu diote Nafarroako Gobernuari 2-3

## Zientzialari nuklear bat hil dute Iranen, hirugarrena bi urtean

Uranioa aberasteko zentroko kidea zen. Iranek esan du programa nuklearrarekin segituko duela, eta erasoaren atzean Israel dagoela uste du 18

## Corrugadoseko kaleratzeen aurka helegitea jarriko dute 16

Bihar BERRIArekin
herrialdeko hitza info

GAUR 40 ORRIALDE · HARIAN 2 · IRITZIA 4 · EUSKAL HERRIA 6 · EKONOMIA 14 · MUNDUA 18 · ERDIZ ERDI 20 · KIROLA 22 · AGENDA 27 · PLAZA 32